




ANGELA BROWN ▶ ABESLARIA

«Musikak bizitzaren inguruan hitz egiten du»

TOLOSA ▶ Gaur emango du Tolosandblues jaialdiaren baitan kontzertua, Plaza Berrian

EGITARAUA ▶ Jean-Mary Ecay, Antonio Serrano, eta Joan Pau Cumellas ere ariko dira ▶ 6-7



Xegunda Iztueta. N. URBIZU

XEGUNDA IZTUETA ▶
MARGOLARIA

«Ateratzen den aldiro eguzkia desberdina izaten da»

Berastegiarraren lanak ikusgai daude Alegiko jubilatuen tabernan ▶ 4



ESTI EZEIZA



Herri ugari festetan murgildurik

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Asteasun, Leaburun, Areson eta Amarotz eta Urkizu auzoetan jai giroa izango da nagusi asteburuan zehar ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Aitor Tejeriak eta Unai Aizpuruk Nizako Ironmana egin dute

Bukatzea zuten helburu eta «gustura» daude billabonatarra eta ibartarra ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Gipuzkoako Segalari Txapelketa bihar

Larraitzen izango da, finala, 12:00etan ▶ 7

Aurtengoan ere, Toureko tropela Mediterraneora!

Abian da tropela.net: tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea dohainik.
Leuzoko emateko ordua: larunbata, urriak 7, 18:00etan

Barren artean, hitzaren harpidetza irabazteko aukera tropela.net

hitza

KIROLA ▶

Burdinezko kirolariak

Aitor Tejeria billabonatarak eta Unai Aizpuru ibartarrak, Nizako Ironmana amaitu zuten jarritako helburuak beteaz eta «sentsazio onekin»



89. postuan amaitu zuen Ironmana Aitor Tejeria billabonatarak. A. IMAZ



Unai Aizpuru Nizako Ironmanaren azken metroak korritzen. HITZA

ASIER IMAZ

Kondairak dio, egun baten buruan, burdinezko gizon batek 4 mendi igo, hiru aintzira zeharkatu eta hiru hiri konkistatu zituela. Ironman proba bat ez da berdina, baina egun batean 3.800 metro igieran egitea, ondoren 180 kilometro bizikleta gainean eta azkenik 42,5 kilometro korrika egitea ez da gauerdiko ahuntzaren estula. Ekainak 24ean Nizan elkartutako 1.500 gizon eta emakumeek helburu hori zuten probaren hasieran, euren artean zeuden Ibarra eta Villabonako Unai Aizpuru eta Aitor Tejeria, Tolosaldeko Triatlói Taldeko kidea lehena eta SM Lagunakoko bigarrena.

Aitor Tejeriak bere laugarren Ironmana amaitu du Nizan, gustura egoteko emaitzarekin gainera: «89. postuan, 10 ordu eta 7 minutuarekin amaitzea emaitza ona da, sentsazio

onak izan ditut». Unai Aizpuru berriz lehen Ironmana izan du Nizakoa. «Bukatzea zen nere lehen helburua, eta ondoren 12 ordutatik jeistea. Eta 11 ordu eta 13 minutuan amaitu nuen, 332. postuan».

Nizarako bidea luzea izan da bi triatlóilariarentzat. «Lana egiten dela dio Aitor Tejeriak. Ibartarrak ere, etxera ogia emateko lan egiteaz gain, entrenamendu saio gogorak egin behar izan ditu, «Pello Gorostidi entrenatzailearekin ibili naiz. Astean 6 egunetan egiten genuen lan. Ostirala deskantsurako hartzen nuen, gero asteburuan

saio gogoragoak egiteko. Nuegun ere eman eta eman aritu gara gimnasioan».

Sakrifizioaz hitz egiteko garaian, bikotea eta ingurukoetaz gogoratzen dira biak. «Gehien baloratzen dudana nere andrearen borondatea da. Azkenean ordu asko dira eta oso zaila da hori ematea», aipatzen du Tejeriak. Aizpuruak berriz, «askotan neskalagunarekin edo ingurukoekin plan asko alde batera utzi beharra» aipatzen du.

Ekainak 24, Ironman-a

Goizeko 04:00ak inguruan esnatu ziren bi kirolariak ekainaren 24ean. Gosaldun ondoren, biak boxetara zuzendu ziren. «Janaria prestatu eta gurgilak puztuzten dira bertan, eguzki haundia zegoenez, aurreko eguneko hutsak utzi genituen, ez lehertzeko». Ondoren, giharrek berotu eta neoprenoa jantziz zuten, igeri hasteko. Aitor

Tejeriaren esanetan, «lehen 400 metroan ez da erraza igeri egitea, ondoren berriz bakoitzak bere lekua bilatzen du eta gustura ibili nintzen». Aizpuru ere lehen txanpan «kolpe batzuk» jaso zituela aitortzen du, baina gero lasai joan zen. «900.-edo iritsiko nintzen igeri egin ondoren. Bizikletan ordea oso gustura aurkitu nintzen eta jendea pasa eta pasa ibili nintzen, ia 600 aurreratu nituen. Honek kezka ere sortu zizkidan, indartsuegi nihoan edo».

Bizikletan biak ongi moldatu ziren, «sentsazio onekin». 180 kilometro eginik, korrikaren txanda iritsi zitzaion. Aitor Tejeriak bero handia egiten zuela azpimarratu du, «32 gradu egiten zituen eta uraz busti arren segidan berriro ere beroa zen nagusi. 30. eta 35. kilometroen artean pattalaldia izan nuen, eta ondorioz korrikalari batzuk pasa ninduten». Unai Aizpuru azken 10 kilometroetan hanketan izan zituen arazoak: «Nizako pasealekuan zegoen 10 km-ko zirkuitoari 4 itzuli eman behar genizkion korrika. Haseran ongi nihoan arren, azken itzulian babak irten zitzaizkidan hanketan eta pixkat sufritzea tokatu zitzaidan. Hala ere oso gustura amaitu nuen». Azken 500 metro faltan, «neskarengana gerturatu nintzen, ordurarteko guztia eskertu nahian edo, muxu bat ematera. Helmugan irabazi izan banu bezalako poza nuen, eskuak goran sartu nintzen. Egunduz garrria izan zen».

LIZARTZA ▶

Otaolak etzi hartuko du alkate kargua udaletxean

A. IMAZ

PPk komunikatu batean zabaldu duenaren arabera, Lizartzako Udal korporazioa uztailearen 2an, astelehenean, osatuko dute, goizeko 09:00etan.

Regina Otaolak alkate kargua hartuko duela jakinarazi dute. Berarekin batera, Manuel Michelena, Laura Garrido, Julia Tercero, Miguel Angel Fernandez, Begoña Pereira eta Jose Luis Marcaidak osatuko dute Lizartzako korporazioa.

Alderdi Popularrak esan duenez, Gipuzkoako Foru Aldundian, hau da, Donostian karguak hartzea aztertu omen zuten, «Batasunaren jarraitzaileek sor zitazketen arazoengatik», baina azkenean, kargu-hartzea Lizartzako udaletxean bertan egiteko erabakia hartu dute.

GAZTELU ▶

Udalak herriko kirolariak zoriondu ditu

Gazteluko Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie herriko hainbat kirolari. Sanjoanetan Tolosan ospatu ziren estropadetan garailu irten ziren gizonetako eta emakumezkoak zoriondu ditu alde batetik. Bestalde, «segalari munduan ere izan ditugu garaipean eta parte-hartze bereziak». Segalarien artean, Joze Gabirondo, Andoni Goikoetxea, Josune Gorostidi, Iurre Olano eta Maria Luisa Gabirondo aipatu nahi izan dituzte.

IBARRA ▶

Jaietako sokadantzarako ikastaroak

Ibarran panpero egunean egiten den sokadantzarako, eskolak emango ditu Alurrdantzako eskolak. Uztailearen 3an eta 10ean eskainiko dituzte, hain zuzen, Alurreko lokal zaharrean, 20:30ean. Aurten jubilatutako omenduko dituzte, bereziki gazteei egin die parte hartzeko deia.

hilberria ▶

Antonia Telleria Aizpuru

Antxon

(Martin Agirrezabalaren alarguna)

HERENEGUN hil zen, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golán bago-



Seme-alabak: Antxon eta Maribel, Mila eta Miguel, Juantxo eta Isabel, Martin eta Itziar, Jose Luis eta Susi, Miguel Angel eta Itziar; bilobak: Zigor eta Ander, Mikel, Patricia eta Saioa, Joseba, Nerea eta Iavi, Xabier, Monika eta Ainhoa, Julen, Amaia, Ivan eta Ane, Maddi eta Irene; birlobak: Markos eta Egoitz; ezkon ahiak: Jesusa Martikorena (Martin Telleriaren alarguna); ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizuetela arren etor zaitezte! GAUR LARUNBATA, arratsaldeko SEIETAN, SANTA MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Korreo kalea 25, 2 esku. oharra ▶ Gorputz bella Tolosaldeko Funeraria Vascongadako belatlegian dago. Gaur larunbata goizeko 10:00ak arte. **TOLOSAN**, 2007ko ekainaren 30ean

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Berrobin 3 logelako etxebizitza, eguzkitsua, bista ederrak, atiko gela eta trastelekua. 34.800.000. JM 657 77 00 85.

GALDUTAKOAK

Giltzak. Giltza batzuk galdu dira Tolosaldeko Rondilla kalean, giltzatak elastiko morearekin. Deitu: 647 31 91 27.

GIZARTEA ▶



Asteasu. Asteasuko Pelota Eskolako finalak jokatu zituzten atzo goizean, elizaren ondoan. E. EZEIZA



Leaburu. 35. Toka Txapelketa jokatu zuten atzo goizean. Bitartean hamaiketakoa egin zuten herriko ostatuan. E. EZEIZA



Urkizu. San Pedro eguna ospatzeko bazkaria egin zuten atzo, bertan izan ziren Tolosako alkatea eta Urkizuko alkate den Pello Ezeiza. E. E.



Amarotz. Haurren txanda izan zen atzo arratsaldean; jokuak egin zituzten eta gozokiak banatu. E. EZEIZA

Festarik festa hor nabil ni egunero...

San Pedro eguna ospatu zuten atzo Tolosaldeko hainbat herritan; asteburuan ekitaldiekin jarraituko dute

ESTI EZEIZA

Asteburuaren atarian eta San Pedro eguna ospatzeko ekitaldi ugari izan ziren eskualdeko zenbait herritan.

Asteasun bigarren jai eguna ospatu zuten, koadrilen eguna hain zuzen ere. Urteroko ohiturari jarraituz, meza nagusiaren ondoren hamaiketakoa egin zuten elizaren atarian herritar-

rrek. Eta honi laguntzeko, Asteasuko Pilota Eskolako finalak jokatu zituzten gaztetxoek. Gaurkoan, berriz, jubilatuen txanda izango da, beraien eguna ospatzeko baitute egun guztian zehar.

Leaburun 10:00etan suziarik iragarri zuen atzo festak hasi zirela. Diana, meza, eta herriko dantzarien emanaldiaren ostean 35. Toka Txapelketa jokatu

zuten. Dena den, batzuk jolasen ziharduten bitartean, beste batzuk ostatuan geratu ziren hamaiketakoa egiten.

Sanjoanak amaitu badira ere, Tolosan ere bada oraindik jalekin amaitu ez duenik. Amarotz eta Urkizuko auzoetan asteburu honetan ospatzen baituzte beraien festak. Eguerdian, Jokin Bildarratz alkatea Urkizura hurbildu zen urtero

egiten den bazkarian parte hartzeko. Jatordua trikitalariek alaitu zuten.

Aipatutako herrietan gaur ere izango da zer eginik eta ikusirik. Hala ere, Areso eta Larraitzen ere Sanpedroak ospatuko dituzte asteburu honetan.

Zizurkilen, koadrila eguna

Festak irailen badira ere koadrilen eguna ospatuko dute gaur Zizurkilen. Hasteko, 13:00etan denak bilduko dira herriko tabernetan poteoari ekiteko. Ondoren, 14:00ak aldera, bazkaria egingo dute Joxe Arregi plazan. Hemen, koadrila bakoitzak bere bazkaria eramango du, bertan, parte hartzen dutenentzako edaria izango delarik. Bazkariaren ostean, mahai jokoetan jolastu ahal izango dute.

GUTUN@K ▶

Zuzenketa eta txaloak

Ezker abertzalea present egon da sanjoanetako ospakizunetan. Zehazki, larunbatean, ekainaren 23an, Arrameleko zubian, Udal korporazioa pasatzerakoan, Tolosako Udala ez dela eratu tolosarren borondatearen arabera salatzen elkarretaratu ginen. Baina San Joan egunean, Trianguloan bordondantzariak alkateari eman zion idatzian, ezker abertzaleak ez du zerikusirik. Txalotzen dugu tolosar horien jarrera zibiko demokratikoa, baina ekimen hori ez da gurea izan, idatzia sinatu dutenena baizik, HITZAN argitaratu zen bezala. Egiaeren alde jasota gera dadin.

EZKER ABERTZALEA ▶ TOLOSA

Ez inoren alde, ezta kontra ere


San Joan egunean, festetako zenbait parte-hartzailek proposamen bat iritsi arazi zituzten. Honen asmua ez zen inoren alde ezta inoren kontra egitea. Eskaera zehatz bat zen: «Tolosako Udala osa dadin tolosarren botoek agindu bezala». Sustatzaileak eskatu zidaten, proposamenari atxikimendua eman zietenen izenean, alkateari idatzia emateko. Eta halaxe egin nuen. Baina ekainaren 26ko HITZAK adierazi zuen, idatzi hori ezker abertzalearen izenean eman niola. Eta, informazio hori ez da zuzena.

ARITZ IGLESIAS ▶ TOLOSA

ZUZENKETA ▶

Asteartean Tolosako sanjoanen inguruan argitaratutako informazioa ez zen zuzena. Alkateari emandako idatzia ez baitzegoen ezker abertzalearen izenean idatzia, herritar talde baten izenean baizik.

hilberria ▶



Juan Jose Eskudero Perez

Loinazpe BHIko ikasle, langile eta gurasook, Josebari eta bere sendiari gure elkartasuna adierazi nahi diegu une latz hauetan.

BEASAIN, 2007ko ekainaren 30a

hilberria ▶

Juan Jose Escudero Auzmendi

Atzo hil zen, 51 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Emaztea: Oliva Perez; seme-alabak: Amaia eta Iñaki Azurmendi, Ioseba; etxeko osaba: Angel Escudero (Resu Albusuren alarguna); ezkon aita: Clemente Perez (Orfelina Hernandezen alarguna); anai-arrebak: Paki eta Xabier, Juntxo, Simoni eta Mikel, Jesus M^a; ezkon anai-arrebak: Claudi eta Alfredo, Angel eta Eusebi, Jere eta Paki, Maite eta Jose M^a, Josu; izabak: Eustakia eta Lucia Escudero eta Basi Erccille; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, MIKEL GOIANGERUAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.


hilbidea ▶ Barrenekoa baserria.
oharra ▶ gorpua Beasaingo Goierri Bellatxian egongo da.

IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 30a

ALEGIA-BERASTEGI ▶ ERAKUSKETA



Zeru bakarra bi une ezberdinetan. Iztuetak ilunabarrak eta goizaldeak ikustea gustuko du, «egun guztiak desberdinak direlako». X. IZTUETA



Ilunabarra. Kolore biziak gustuko ditu Iztuetak. x. i.



Arratsaldea. Artistak ez du zuzenean margotzen; gogoratzen duena irudikatzen du, azkenean nahi dituen koloreak jarritz. x. i.



Urarekin jolasten. Kolorea da margolanetan protagonista; eguzkiak zeruan sortutako koloreak, hain zuzen. x. IZTUETA

XEGUNDA IZTUETA ▶ MARGOLARIA

«Egunero ateratzen da eguzkia, baina aldiro ezberdina da»

Xegunda Iztuetaren lanak Alegiko jubilatuenetan daude ikusgai

NEREA URBIZU

Xegunda Iztueta artista (Berastegi, 1928), tindatzaile ogibidez izandakoa da. Margoak eta koloreak izan ditu begien aurrean beti, eta jubilatutik ondoren, kolore hauekin jarraitu nahi izan du, artea beste modu batean islatuz. Alegiko jubilatuen tabernan daude ikusgai hila-betez.

Jubilatu ondoren margotzen hasi zara.

Bai. Artekan Olivia Sanchez-

kin margotzen ikasten dut, eta horrez gain asko lagundu nau nire margolanak erakusten ausartzeko orduan, benetan eskertzekoa. Horrez gain, Tolosalako Kultur Etxera joaten naiz buztina egitera. Niri buztina lantzea gehiago gustatzen zait margotzea baino.

Eguzkia da erakusketan protagonista. Zergatik?

Goizetan kanpora ateratzen naizenean ikusten dudana margotzen dut; eguzkiak zein gorabehera dituen ikusten

dut. Egunero ateratzen da eguzkia baina aldiro ezberdina da. Berdina lainoekin eta ilargiarekin. Nafarroan adibidez, iluntze zoragarriak ikusten dira. Gero, nik hori irudikatu nahi izaten dut, baina nahi ditudan koloreak jartzen dizkiot. Askotan hasi eta bukatu egiten ditut.

Koloreak garrantzi handia du zure margolanetan.

Kolore biziak eta alaiak gustatzen zaizkit: dagoena gustatzen zait. Etxeak, adibidez, ez ditut margotzen: etxeak argazkitan daude eta ez dira ia aldatzen. Eguna, berriz, desberdina da bata bestearekin, eguzkia ez baita behin ere berdina izaten.

Ilunabar batzuk ikusi dituzu, beraz.

Nafarroatik natorrela argiek



N. URBIZU

zeruan txoke ikaragarriak sortzen dituzte, bai, oso desberdinak dira.

Tindatzailea izan zara.

Bai, nire ogibidea izan da. Beti gustatu zaizkit koloreak, beti tindeen artean ibili naiz. Ez nuen inoiz pentsatu margolanak egingo nituenik. Beti jende aberatsarentzako kontua zela iruditu zait margotzearena, baina laguntza pixka batekin azkenean egin dut.

Margotzea komenigarria da?

Oso gomendagarria da. Eskulanek asko laguntzen dute:

sendagarri asko baino hobea da.

Zer da margotuko duzun hurrengoa?

Garai bateko metak irudikatu nahi ditut. Nire ilobek orain arte belar-metak egin dituzte, hori irakatsi diegu, eta nik buztinezkoak egingo ditut. Ondoren, koadroetara pasako ditut lehenagoko meta horiek. Desagertu aurretik margotuko ditut, dauden tokian. Zerua egin dut, eta orain lurra: nire ingurua egin nahi dut, mendian daudean, desagertu aurretik. ◀

Bidaia Agentzia
bidaide



Erribea, 6 behea
VILLABONA
Tel.: 943 69 26 93

Udara honetan Donostiatik Menorkara **zuzenean**
7 gau 339 €-tik aurrera

LEITZA ▶ KIROLAK

Zaldi Eguna, Inguruarteko zelaian, gaur

Zelaian eta herriko plazan hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izanen da

ERREDAKZIOA

Leitzako Inguruarte zelaia zaldiek hartuko dute gaurkoan, Aurrera elkarteak antolatuturik, Zaldi Eguna egingo baitute.

Goizean goiz hasiko da zaldien festa bertan, 09:30ean, hain zuzen. Ordu horretan emango zaio hasiera Leitzatrek-i. Mendian zehar ibilaldiak egitean aurkitzen diren oztopoak gainditzean datza, eta honen erakustaldia izango. Proba honetan parte hartu nahi duenak 09:00etan egin beharko du. Honetaz gain, goizean zehar, haurrentzako poneyak egongo dira, perraketa eta bai-

ta zaldien erakusketa ere Inguruarten. 16:30etik aurrera, bazkariaren ostean, berriz, western erako heziketa, heziketa naturala, espainiar erako heziketa, heziketa klasikoa, goi mailako eskola, traba saltoa, erakustaldi artistikoa eta behor estalketa egingo dituzte zaldunek.

Dena den, Inguruarten ezezik, festa plazan ere izango da. Bertan, 13:00etan zaldi proba egingo dute; 14:00etan, berriz, pikatzailea eta bere zaldiaren prestaketa izanen dira ikusgai, eta azkenik, 14:30ak aldera, bazkari legean bilduko dira parte-hartzaile guztiak.

IRURA ▶ GIZARTEA



5. Garagardo Azokak irekita ditu ateak

Erredakzioa ▶ Atzo ireki zituen ateak Irurako 5. Garagardo Azokak, eta gaur eta bihar ere izango da garagardoa dastatu eta baita jakiak probatzeko aukera ere. Gaur eta bihar 18:00etan zabalduko dute eta goizaldera arte egon ahalko dute bertan animatzen direnek. Hiru egun hauetan ateratzen duten dirua, datorren urte bukaerarako izango duten ikastola berria ordaintzeko baliatuko dutela azaldu dute Marimi Ugalde Irurako alkateak eta Iosune Aiestaran Irurako ikastolako zuzendariak. ASIER IMAZ

LEITZA ▶ GIZARTEA

Gorritzarango Eguna ospatuko dute bihar

ERREDAKZIOA

Kaxeta aldean festa giroa izango da nagusi bihar, Gorritzarango Eguna ospatuko baitute, egun osoko egitarau oparoarekin.

Hasteko, 10:00etan, meza izango da, eta ondoren, aizkolariak, ahari apustua, sokatira eta umeentzako jolasak izango dira ikusgai. Saio horien ostean, Lizaso eta Mañukortabertsolarien txanda izango da; Bertso saioaren ondoren, bazkaria egingo dute auzotarrek.

Arratsaldean ere, izanen da festarako aukera. 17:00etan, XXII. Mus Txapelketa egingen dute; 19:00etan, dantzaldia izango da Miguel Angel Aguerriarekin gauerdira arte edo; 20:00etan, berriz, XXII. Txintxurren Txapelketa egingen dute, eta 20:30ean zozketa; ondoren, txokolatada prestatuko dute gerturatzen den guztientzat. Eta egun osoan, noski trikitilarien doinue alaituko dute giroa. Festarako bada beraz aukera aparta biharkoan, Leitzako auzoan.

EZ ZAITEZ GALDU!
Liburu asko eta bidaiak egari.
Hemen gauzatu gihari.

ZERBITZU BERRIA
Datu internetez ere eskura dituzkete bere liburuak.
www.elkar.com

ARRADATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IZURUA • TOLOS

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSA ▶ TOLOSANDBLUES JAIALDIA

Bluesaz gozatzeko aukera paregabea izango da gaurkoan Tolosan, Tolosandblues jaialdian; izan ere, Plaza Berrian, 20:30ean, Jean-Mary Ecayk eta bere taldeak kontzertua emango dute eta horren ondoren, 22:30ean, Angela Brown eta Keith Dunnen txanda izango da IMANOL GARCIA

ANGELA BROWN ▶ ABESLARIA

«Musikak bizitzaz hitz egiten du»

Eszenatoki gainean abeslari indartsua da Angela Brown

Angela Brown (Chicago, AEB, 1951) bluesaren izarretako bat da. Kritikok bere zuzenekoak indartsuak eta probokatzaileak direla diote.

Zure zuzenekoak oso indartsuak izatearen fama dute.

Nik egiten dudana egiten dut. Jendearekin hitz egiten dut eta esaten didate zuzeneko indartsuak direla eta atsegin dut hori entzutea. Kritika oso politak jaso ditut hainbat urtetan. Ni benetan naizena da mikrofonoa duen emakume bat. Nik musikaren bitartez hitz egiten dut.

Zer du blues musikak beste estiloetatik bereizten duena?

Niretzako ez daude hainbeste musika mota. Hartzen baduzu blueseko kantu bat eta abiadura handitzen badiozu, rock-and-rolla ateratzen zaizu. Beraz, esatea zer musika mota den ez litzateke guztiz zuzena izango. Bluesa dantza egiteko musika da, entzuteko musika da... Edonor da aditua blues musikan, musika guztia bluesetik baitator. Gazteei ere esaten diet badakitela zer den blues musika, egun egiten den guztia hortik datorrelako.

Hain justu, blues kontzertu bat lehenengo aldiz entzutera joaten denak normalean guz-



HITZA

tuko du bertan entzuten duena.

Urte askotan beltzen musika bezala hartu izan da. Jende askok pentsatzen du blues musika tristea eta depresiboa izan behar duela. Eta hori ez da egia. Musikarekin egin behar duzuna da zure bihotza eman eta jendearekin hitz egin.

Estatu Batuetako entzunlegotik Europakora alderik badago?

Jendea jendea da mundu guztian zehar. Ez da hainbeste aldatzen. Agian zerbait aldatzen da bizitzari begiratzeko zenbait modutan, baina jendea

jendea da. Denok uler dezakegun gauza bat da bizitza. Eta musikak, hain justu, bizitzaz hitz egiten du.

The Mighty 45's taldearekin jo izan duzu. Tolosara beste laukote batekin zator eta Keith Dunn gonbidatu gisa.

Taldekoak nire lagunak dira aspalditik. Oso pertsona bereziak dira. Eta Keith Dunnen musika beti gustatu izan zait eta batera hainbat gauza egin ditugu urte askotan. Azken batean, musikaren lagunak gara guztiak eta ez gara orain topatu, hamar urte baino gehiago badira elkar ezagutzen dugula.

KEITH DUNN ▶ MUSIKARIA

«Sentimendu berezia ematen du ahosoinuak»

Blues musikan ezaguna da oso Keith Dunn (Boston, AEB) ahosoinujole eta abeslaria. Tolosara Angela Brownen gonbidatu bezala etorriko da.

Hau al da lehenengo aldiz Angela Brownekin ari zarela kontzertuak ematen?

Angela Brownekin hainbat aldiz izan naiz kontzertuak ematen. Europan zehar aritu gara.

Nola deskribatuko zenuke?

Artista oso dinamikoa da eta entzunlegoarekin oso harreman berezia izaten du. Horregatik oso kitzikagarria da beti berarekin aritzea. ◻

Zer musika eskainiko duzue?

Nik musika jotzen dut eta horri buruz idazten dutenei uzten diet deskribapena egitearen lana. Baina esan daiteke ondo pasatzeko blues musika eskainiko dugula, dantzatu daitekeena edo lagunekin zerbait hartzen ari zarela entzun daitekeena. Musikaren ideia da bluesean sakontzea, berau arte bezala hartuta, baina era berean entzunlegoa gustura sentiaraziz.

Euskal Herrian eman duzu kontzerturik?

Orain urte batzuk bira bat egin nuen Corey Harrisekin Bilbon, Donostian...

Eta nolako da entzunlego euskalduna?

Espiritu handikoa da eta nola benetako musika tradizioa da goen, bluesarekiko sentimendu ona dute. Gustatzen zait



HITZA

bertan jotzea eta ondo pasatzen dut.

Bluesa ezagutzen ez dutenei zer esango zenike?

Ez izan arren bluesaren zale-tuak edo ez badute bluesa ezagutzen ere, entzuten dutenean, rock-and-rolla edo entzun dituzten beste musika mota batzuk gogorarazten dizkiete.

Bi ahosoinujolek, Antonio Serranok eta Joan Pau Cume-lasek, emanaldi bat egingo dute zuen ondoren. Agian zu ere animatuko zara?

Ezagutzen ditut eta oso musikari onak dira. Ideia ona izan daiteke parte hartzea. Ikusiko dugu posible den.

Zer eskaintzen dio ahosoinuak bluesari?

Lehenengoz, musikariaren arabera da hori. Ahosoinuak sentimendu berezi bat ematen du. Ahotsaren sentimendua gehiago erakutsi dezakezu.

JEAN-MARIE ECAY ▶ MUSIKARIA

«Zuzenean jotzea dut gustuko»

Ibilbide luzeko musikaria da Jean-Marie Ecay (Donibane Lohizune), Itoitze talde euskaldunean, tartean. Estilo ugari jorratu eta jorratzen ditu Iparraldeko gitar-joleak.

Orain gubid jazz talde bat osatu duzu. Talde horrekin zator?

Blues jaialdia izanik eta nola horren inguruko gauzak egin ditudan, Tolosan egingo duguna ez da izango jazz estiloko musika. Hori bai, inprobisazioa

ere izango da, baina soinua elektrikoagoa izango da, teklista ere baitator, eta aukeratu ditudan abestiak bluesaren zerikusia dute.

Estilo ezberdinetan aritzen zara, beraz.

Beti aritu naiz denetik pixkat egiten: blues, jazz, pop, rock... Nire proiektuak beti dira musika instrumentalarik lotuak, jazzarekin nolabaiteko lotura dutenak, baina gehiago edo gutxiago, elektrikoa izan daiteke.

Tolosan aurretik izan zara?

Bai, orain gutxi aritu nintzen Fronton kafetegian jotzen.

Eta zer oroitzen duzu?

Oso polita izan zen. Hain justu, kontzertu horren ondorioz sortu da jaialdi honetan jotzeko aukera. Eta ilusio handia egiten dit, asko gustatzen zaidan herri bat da. Askotan joaten naiz bertara lagun asko baitituz bertan.

Nola ikusten duzu Tolosan horrelako jaialdiak egitea?

Zer esango dizut ba nik, musikaria izanda... Oso ondo iruditzen zait. Are gehiago, zuzeneko musikaria izanik. Niri zuzenean jotzea gustatzen zait. Beraz, oso gustura eta gogoz nago leku horretan jotzeko eta, noski, nik ez banu joko ere oso ondo iruditzen zait horrelako jaialdiak antolatzea, horrelako musika ezagutarazteko. Izan ere, telebistan azaltzen den musika etengabe entzunarazten digute.



HITZA

Bi ahosoinujole bikainen saioa Fronton kafetegian

Antonio Serranok eta Joan Pau Cumellasek kontzertu berezia gaur Tolosandbluesen

I. GARCIA

«Niretzat ohore bat da Antonio Serranorekin jotzea», dio Joan Pau Cumellasek kataluniarrak. «Niretzat plazer bat da Cumellasekin jotzea», dio Antonio Serrano espainiarrak. Elkarri horrelako laudoriak bidaliz, gaur Fronton kafetegian bi ahosoinujoleek kimika handiko kontzertua emango dutela ziurra da. Gauerdian joko dute eta kontzertuarekin amaiera emango diote Tolosandbluesen jaialdiari.

Bi artisten arteko laudorioak, haatik, ez dira hor amaitzen. Antonio Serranok dioenez, «Joan Pau laguna da eta beti gauza berriak bilatzen ari den ahosoinujolea da, eta hori eskertzeko da instrumentu honetan, askotan bluesen barririk kokatzen dutelako. Cumellas arriskatu egiten da eta beti gauzak berriak bilatzen ari da. Espainian jardunean dauden ahosoinujoleetatik interesgarrienetako dugu». Serranok azaltzen duenez, «ez dugu batera jotzeko aukera izan aurretik modu honetan», eta horregatik «gogotsu eta ilusioarekin» datorrela dio.

Cumellasek, bere aldetik, Antonio Serrano «musikaren munstro» bat dela dio. «Luxu bat izango da kontzertuan bera egotea. Niretzako mundu mailan gehien nabarmentzen den ahosoinujoleetako bat da. Musikari osoa da, oso garrantzitsua».

Diatonikoa eta kromatikoa

Bi harmonikajole eta bi harmonika ezberdin elkartuko dira eszenatokiaren gainean. Cumellasek harmonika diatonikoa jotzute, besteak beste. «Freskotasuna bilatuko dugu, gure artean aurkitzea eta elkarreragitea», dio Serranok. «Horretaz doa musika hau ere, inprobisazioaren bidea jorratze-



Antonio Serrano. HITZA



Joan Pau Cumellas. HITZA

az, eta hori da hain zuzen egiten dugunaren magia». Cumellasek ere «inprobisazioa irekita» egongo direla dio. Bi musikariek batera ariko da Miguel Talavera gitar-jolea eta honek ere bakar-saioak egingo ditu.

Cumellasek batez ere blues musika jorratzen du, baina beste musika batzuk ere lantzen ditu. Serranok, berriz, hainbat musika estilo jorratzen ditu: musika klasikoa, flamenkoa, jazz, bluesa... Biek gustuko dute Euskal Herrian jotzea. Serranok dioenez, «beti erantzun positiboa jaso dut. Entzunlego irekia da, aditua eta entzuten duena. Benetan gauzak balioesten egiten dituenen».

Aipatzekoa da beraien aurretik, Plaza Berrian, Keith Dunn ahosoinujoleak kontzertua eskainiko duela Angela Brownekin batera. Serranok eta Cumellasek ezagutzen dute Dunn. Kontzertua «are bereziagoa» izango dela diote, Dunnek bere saioaren ondoren Fronton kafetegira joaten bada beraienkin jotzera. Ea hiru ahosoinujoleak elkarrekin entzuteko aukera duten blueszaleek.

VILLABONA ▶ KULTURA

Amodiozko gutun onenak aukeratuta

Erredakzioa ▶ Atzo egin zuten Amodiozko Gutunaren Lehiaketako sari banaketa, eta hauek izan ziren irabazleak: 1. saria Bergarako Roberto Izagirrek jaso zuen *Non zaude* lanarengatik; 2.a, Eibarko Daniel Astarloaren *Lorea* lanak; billabonatar onenarena Alexander Padiillaren *105. gela* lanak; eta gazte onenarena Oartzungo Goiatz Labandibarren *Atotzako zubipetik*. NOTICIAS DE GIPUZKOA



KIROLAK ▶

Herri kirol probak bihar, Larraitzen eta Leaburu-Txaraman

Gipuzkoako Sega Txapelketako finala Larraitzen eta Harri Txikien, Orga Joko eta Ingude Altxatze txapelketak Leaburun

IÑIGO TERRADILLOS

Herri kirol saioak ikusteko aukera polita izango da biharkoan eskualdean. Larraitzen, esaterako, Gipuzkoako Sega Txapelketaren final saioa izango da 12:00etan. Mikel Alkorta asteasuara, Joxe Gabirondo gazteluarra, Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Jesus Mari Ormaetxea *Urki* orendaindarra dira ordubeteko saioan kilo gehien biltzera lehiatuko direnak.

Leaburun, bestalde, hainbat txapelketa izango dira, 18:00etan hasita. Gipuzkoako Harrijasotze Harri Txikien Txapelketan Jokin Eizmendi, Aimar Irigoien, Hodei Iruretagoiena, Jesus Mari Iruretagoiena, Unai

Lertxundi, Joseba Ostolaza eta Urtzi Telleria lehiatuko dira. 8 arroako bola, 9 arroako kubikoa eta 10 arroako zilindro berrira igo beharko dituzte. Gipuzkoako Orga Joko Txapelketan, berriz, Andoni Agirregabiria, Iker Goikoetxea, Patxi Ituarte eta Javier Urresti ariko dira nor baino nor. Gurdiairen pisua 350 kiloko izango da, eta denbora librean ariko dira. Eta Gipuzkoako Ingude Altxatze Txapelketan, Aitor Etxeberria, Iker Goi-

koetxea eta Jon Mugartegi lehiatuko dira. 18 kiloko ingudea izango da eta minutu bat eta 30 segundo izango dituzte.

Bestalde, Anoetako Argindegi zelaian, 12:00etan hasita, apostu bat ikusteko aukera izango da. Hiru probatan izango da lehia: kilometro bat korrika, 2 kanaerdiko ebakiko dituzte aizkorarekin eta segan 100 metro. 1.000 euro izango dituzte jokoan.

Iturri-Ondo Jatetxea
BETIKO SUKALDARITZA menua kartak parrilak
Tel.: 943 69 13 31
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa), Pisu San Franzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak. Araba etorbidean irekia eta San Franziskon itxia.
Alokatzeko. Pabilioi industrialak, Leaburuko bidean.
Salgai (Tolosa), Pisu "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa), Pisu Bizkaia kalean, gutiz eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak ibarran.
Salgai (Tolosa), Garajeak Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK
GOIZETARAKO LANGILE BAT BEHAR DU
Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria. Erref.: THH
• Derrigorrezkoa: EGA titulua edo baliokidea
• Inglesaren ezagutza baloratuko da
• Informatikaren ezagutza baloratuko da
TOLOSAKO eta ANOETAKO IKASTOLEK
JARDUERA MURRIZTUAN LANGILE BAT BEHAR DUTE
DBHn matematika, biologia eta informatika emateko. Erref.: TBH
Zientzietan lizentziaduna (matematika, biologia, kimika)
• Derrigorrezkoa: CAP eta EGA titulua edo baliokidea
• Inglesaren ezagutza baloratuko da
Curriculumak e-mailaz bidali behar dira tolosa@ikastola.net helbidera. Jasoko diren azken eguna, uztailaren 4a.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alegia. Jai batzordeak zikiro jaterako txartelak eskuratzeko epea luzatu du: Etxeberria, Jubilatuen Taberna, Kafe Letamendia, Iskiña eta Kurpilen.
Asteasu. Jaien baitan, 11:15ean meza; hamaiketako; herri kirolak; 14:30ean bazkaria; 16:30ean haur jokoak; 17:00etan mus txapelketa; 18:00etan sokamuturra txiki; 19:00etan Kukubiltxo; 23:00etan diskofesta.
Berastegi. Herriko antzerki taldeak hiru lan (*Obras Miel*, *Oporretan* eta *Eskola*) eskainiko ditu Muñagorri eskolako gimnasioan 19:30ean.
Ibarra. Langostino Moto Festa: 14:00etan hasiera; 17:30ean jokoak; 19:30ean Stuntman ikuskizuna Narcis Rocarekin; 21:00etan afaria; Losdelgas txoritöhead musika taldea; striptease 02:00etan; zurito langostino txapelketa; 03:00etan DJ Tupe.
Irura. V. Garagardo Azoka, 18:00etatik aurrera.
Leizta. Zaldi festa Inguruarteko zelaian 09:30etik aurrera: trek-a, 80-90 zaldi-behorren erakusketa; umeentzako poneyak; 13:00etan zaldi proba plazan; pikatzailea; bazkaria; 16:30etik aurrera heziketa erakustaldia eta behor baten estalketa.
Tolosa. Amaroako jaiak: txirindulari proba, balkoi loratuen lehiaketa, bakailu lehiaketa, haurrentzako jolasak, mus txapelketa eta danborrada.
Tolosa. Paleta txapelketa gomazko pilotarekin antolatuta du Tolosa CFK uztaillean Berazubiko frontoian. Izen-ematea, 20 eurotan bikotea (10 bazkideek) klubeko bulegoan edo 656 719263 telefono zenbakian.

Ingalaterratik bueltan

TOLOSA ▶ Hirukide ikastetxeko DBH 4. mailako ikasleek Ingalaterran izan dira elkartruke batean



ERREDAKZIOA
 Ikasturteari amaiera ezin hobea eman zioten Hirukideko DBHko 4. mailako 64 ikasleek. Izan ere, elkartruke batean Ingalaterrara bidaiatu egin zuten. Bertako ikasleekin elkarbizitzaez gain, ingelerako eskoletara ere joan ziren, euren jakintzak hobetzeko.
 Nola ez, aisirako tartea ere izan zuten eta, besteak beste, Lanchester, Hereford eta Ross-on-Wye bisitatu zituzten bertan.



Ingalaterran izan dira pasa den astean Hirukidekoak. HITZA

Tolosa. Urkizun, San Pedro jaien barruan, 10:30ean meza nagusia, 12:30ean toka txapelketa eta 18:00etan bolo txapelketa izango dira Urkizun.
Tolosa. Tolosandblues 07: Jean Mari Ecay Quartet 20:30ean plaza Berrian, Angela Brown&Blues Band 22:30ean plaza Berrian eta Joan Pau Cumellas blues band+Antonio Serrano (artista gonbidatua) 24:00etan Frontonen.
Zizurkil. Zizurkilen *Barrena* beka antolatuta du Udalak, herriko emakume baseritarrei buruzko diagnostikoa egiteko. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira (943-692495).
Zizurkil. IV. Koadrila Eguna Zizurkilen: 13:00etan poteoa; 14:00etan bazkaria Joxe Arregi plazan; ondoren mahai jokoak koadrilen artean eta sari banaketa.

ZINEMA

Tolosa. *Shrek 3* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur eta bihar 17:00etan eta 19:30ean eta etzi 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leizta. Larraia, M.J. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Andoni Mujika (Tolosa) eta Xabier Tolosa (Anoeta). Lizarrako eskuz binakale alebin txapelketako txapeldunak.



ZORIONAK
 Casto eta Maitere. Ondo pasa ditzazuela zuen urrezko etzeiak familia osoaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa
- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

hitza agurren tartea

TOLARE-SAGARDOTEGIA
 Jatorrizko Sagardoa

SARASOLA

Sagardotegia - ASTEASU • Tel.: 943 69 02 83
 Zumalkardil Baserria - ANOETA • Tel.: 943 65 26 22